

~ Hitzordu ~

Babelgo dorreari etekina ateratzeko

Galtzagorri osatzen duten irakasle, marrazkigile, editore, idazle, itzultzaile, bibliotekari, liburusaltsaile, kritiko eta abarrek tarte hau izango dute beren iritzia plazaratzeko bigarren zenbakitik aurrera. Lehen zenbaki honetan, ordea, zenbait pertsonak eta elkartek Behinola honi eman nahi izan dizkioten ongi etorriak biltzen dira.

Babelgo dorrearen pasadizoa historia gaizto bezala azaltzen zaigu Biblia: Noe-ren ondorengoak zeruraino iritsi nahi eta dorre bat eraikitzen hasi ziren, baina Jainkoak hizkuntza desberdinez hizketan jarri eta nahastu egin omen zituen, elkar ulertu ezin zutelako. Mundua ez zen, ordea, horren ondorioz suntsitu eta, halaber, hitzun desberdinak elkar ulertzeko bidea asmatu zen: itzulpena ezpairik gabe.

Euskal Herrian, askotan, besteek gure hizkuntza ulertu ezin izana, harrotasunez aipatu izan da, eta gaur, oraindik, batek baino gehiagok euskarearen ezaugarriak aipatzean besteekiko desberdintasuna azpimarratuz poztu ohi dira. Hori horrela den arren, egun guztiok ohartzen gara atekaz balik edukitzearen garrantziaz, geurea besteie eza gutzera emateak eta guk besteena jasotzeak daukan garrantziaz. Eta joan-etorri hori are garrantzitsuagoa da, gainera, belaunaldi gazteentzat, guk bizi izandako moldeak hautsi eta globalizazio handiagorantz doan mundu elkarerlazio-natuan bizitzea tokatzen hasi zaielako gazte-gaztetandik.

Zentzu horretan, literaturak maila guztietan eta bere baitan gorde-

tzen dituen munduarekiko erreferentzien aberatasunak funtsezko bideetako bat izan behar du gaurko belaunaldiari eskatzen zaion pragmatismotik irteteko eta amets egiten irakasteko, eta zenbat eta erreferentzia zabalagoak orduan eta aberatsagoa izango da guztion bizimodua.

Horregatik guztiagatik eta beste hainbat arrazoiengatik da hain beharrezkoa Babelgo dorreak eragindako hizkuntza nahasketaz baliatzea, hizkuntza desberdinetakoa geureganatzeko aukerak baditugulako, noski. Eta esan gabe doa geureari tinko eutsi eta besteie ezagutzera ematea ia besteena geureganatzea bezain garrantzitsua dela, elkar elikatuz bakarrik izango garelako geu. Eta berriro diot adinik gazteenetatik hasi behar dela izpiritu hori lantzen.

Gure artean, ordea, haur eta gazte literaturari ez zaio beste herrialde askotan duen garrantzia ematen. Literatura horietara dedikatzen diren idazleek oso gutxitan izan ohi dute helduentzako literatura idazten dutenen pareko oihartzuna, eta beste horrenbeste gertatzen da itzulpenarekin: helduentzako literatura itzultzea garrantzitsuagozat jotzen da orohar (esate baterako, haur eta gaz-



Jokin Mitxelena

teentzako literatur itzulpenak Euskadi Saritik kanpo geratzen dira). Egia da ere argialetxeek azken urteotan izugarritzko ahalegina egin dutela haur eta gazteentzako literatur liburuei itxura duina ezezik dotorea eta beste inguruko herrialdeetako aldean inbidiarik gabea ematen. Eta hori, dudarik gabe, txalogarria da.

Baina badira itzultzaileok kezkatzen gaituzten zenbait gauza. Haur eta gazte literatura itzultzen duen asko ez da lanbidez itzultzailea, askotan maisua edo maistra baizik, eta horrek ondorio zuzena du lanbide honetatik bizi garenengan: alde batetik lan gutxi iristea, eta bestetik lanaren ordainketa, beste irabazbide bat duenak ez baitauka itzulpenak eginaz soldata duin bat ateratzeko premiarik. Bestetik, helduentzako literatur itzulpe-

naren inguruan badaude kritika bide desberdinak, ez ordea haur eta gazteentzako literatur itzulpenean, eta horrek, askotan, kalitatea gehiegi ez zaintzea dakar, eta gainera, itzultzen diren liburuen egokitasuna, zein adinei zuzentzen zaizkien eta beste hainbat irizpide ere ez dira aztertzen.

Beraz, pozgarria da itzultzaileontzat ere haur eta gazte literaturari eskainitako aldizkari bat sortzea, aukera emango duelako hain alor garrantzitsuaz gogoeta egiteko, informazioa trukatu eta guztion artean haur eta gazteentzako gozabidea den bitarteko hain bikaina aberasten jarraitzeko.

LURDES AUZMENDI

EIZIEko Lehendakaria

(Euskal Interpretari, Zuzentzaile eta Itzultzaileen Elkarte)

Marrazkigile baten agurra

Nire eginkizuna argitzeko, esaten dudanean marrazkigilea naizela eta hobe izango dudala gutxiago hitz egin eta marrazten hastea, bada inguruan pertsona on bat esaten duena gure hizkuntza ez dagoela hitez osatua, irudiek hitz egiten dutela



Jokin Mitxelena

haien ordeztu, eta haiei entzun egin behar zaiela, eta hitzekin esan ezin dena irudiek esango digutela. Egia handia duzu hori dena, eta ez ditut gaitziki hartzen horrelakoak baten banidade txiki-txiki hau zaintzeko, baina tarteka hitzekin marrazteko ere eskatu beharko dit lagun on honek.

Eta hau dut bi hitz marrazteko okasio bat. Marrazkigileotaz hitz bat idazteko.

Marrazkigileok hitz egiten badakigula eta, are gehiago, ilustratzaile batek beste batekin ere hitz egin dezakeela, horrek ez gaitu harritu behar. Baina gure gremio hau hau, publikoan mutu

samarra dugu eta agian, aldizkari honetan, publikoan hitz bat esatea baino beste erremediarik ez dugu izango.

Horregatik, hemen duzu beste arrazoi bat Galtzagorriren aldizkari honi ongietorria emateko.

Galtzagorri izenaren azalpena, aurreneko orrialdeetan jartzeko:

Galtzagorri, berez, pertsonen laguntzen dien gizaki itxurako jeinu edo iratxo baten izena da (babesten duen pertsonaren jostorrazontzian lausar daitezke).

Galtzagorri, horretaz gain, euskal Haur eta Gazte Literatura bultzatu eta sustatu nahi duen elkartearen izena ere bada, bibliotekariz, irakaslez, idazlez, ilustratzailez eta, oro har, hainbat zaretuz osatua.

JOKIN MITXELENA. *Marrazkigilea*

Irakurzaletasunaren itsasoan

«Sekula ez aldeko haizerik, nora doan ez dakienak», zioen erranai-ruaren guztiz alderantzizkoa behar-ko zenukete ikurtzat Galtzagorri-
deok, hala nola sortu berri duzuen aldizkari honek.

Saia gaitezen, bada: simetriak aginduko lukeen «aldeko haizea beti, nora doan dakienak» horrek, ordea, bide leun samurra iragartzen du, leunegia eta samurregia, akaso, paperezko oihanean irudi-ahots propioak nabarmendu nahi dituenarentzat.

Konpromezuzko irtenbide bat: «lemari tinko utsirik, aldeko bihurtzen du haize oro nora doan dakienak». Egokiagoa, ziurrenera, zuen abentura kilikagarri honentzat, baina baldintza gehiegi bil-tzen ditu, hitzik gabeko itzaletan, esaldi horrek.



Jokin Mitxelena

Bestalde, baikorregia ere gerta lite-ke, ez baita begibistakoa haur eta gazte literaturaren ontziak, irakur-zaletasuna eta plazerra izan ditue-nik lemazain. Sarriagotan nagusitu da irakurketa behartuaren kontra-maestrea ontziaren zubi barreneko agintean.

Besteren bat behar luke: «haizea aldeko nahiz kontrako, nora doan dakienak bide egokian beti». Aproposagoa, zalantzarik gabe, Galtzagorrikide kementsuontzat.

Aldeko gerta dakizkizuela, beraz, haizea eta jakituria, ontzia irakurzaletasunaren itsasoan ba-rrena gidatzerakoan.


JORGE GIMENEZ BECH

Euskal Editoreen Elkarteko Lehendakaria

«Galtzagorri Elkartea» euskarazko haur eta gazte literatura sustatzeko ahaleginean

Benetan pozgarria da Galtzagorri Elkartek bul-tzatutako aldizkari hau kalean ikustea. Aukera aprobetxatuz, gure elkarteari buruzko zenbait ar-gibide eman nahiko nizkizuke.

Galtzagorri Elkartea 1990ean sortu zen eta gure egitasmo nagusien artean, euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea dau-dela esan genezake. Elkartean, hor-taz, literaturgintza mota horrekin harremana duen edonork har dezake parte, dela idazle eta ilustratzaileek, irakasleek, bibliotekariak, itzultzaileek, liburusaltzaileek,... haur eta gazte literaturazale den edonork.



Jokin Mitxelena

Guztiarekin, ez dira hor agortzen Galtzagorri Elkartearen jarduerak, jakina denez, OEPLI de-lakoan (*Organización Española para el libro in-fantil y juvenil*) euskal ordezkaritza bere gain har-tzen baitugu urtero. Hau dela-eta, Espainia mai-lan antolatzen diren lehiaketa desberdinetan (dela Lazarillo sarietan, dela Haur eta Gazte Literatu-rako Sari Nazionalean) euskal hau-tagaiak proposatzen ditugu. Horre-kin batera, nazio artean haur eta gazte literaturan entzute handiena duen IBBY erakundeak kaleratzen duen Ohorezko Zerrendarako na-hiz Andersen Sarietarako ere eus-

≈ Hitzordu ≈

kal *idazle/ilustratzaile/itzultzaileak* proposatzen ditugula esan behar da.

Urte luzeetan egindako lan esker-gari jarraipena emateko, 1998an Kultura Sailera jo genuen hainbat egitasmotarako dirulaguntza eskatuz. Horiei esker kaleratu ahal izan genuen *Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Idazleak* izeneko katalogo eleaniztuna. Bertan, egungo 22 idazleren bio-bibliografia eta kritikak bildu genituen eta, egia esan, katalogoaren harrera izugarri ona izan dela aitortu behar dugu. Atzerriko erakunde desberdinetara (liburutegi, unibertsitate, argitaletxe, banatzaile, IBBYren egoitza,...) bidali genituen 400 aleek nahiz estatu espainiar eta frantziarrera igorritako beste 400ek erantzun paregabea izan dute. Sudafrikatik hasi eta Europako estatu nagusienekin jarraituz, erakunde desberdinen esker-rona jasotzeak benetan poztu gaitu.

Horrekin batera, 1998ko abenduan Caceresen egin zen «2º Congreso de Literatura Infantil» delakora ere joan ginen. Gure elkartekideek aurkeztutako lan desberdinek (guztiz aipagarriak Xabier Etxanizek eta Edurne Uriak irakurritakoak) estatu espainiarreko eta Portugalgo adituen harrera ona izan zuten. Euskal ordezkarien partaidetza osatzeko, euskal liburu eta ilustrazioen erakusketa bat antolatu zuen Manu Lopez elkartekideak eta zenbait euskal ipuin eta poema irakurri Gerardo Markuleta idazle eta itzultzaileak. Lerro hauetan ez daukat lekurik han esandakoak eta egindako guztiak laburtzeko, baina pozik itzuli ginela esan dezaket. Kongresura hurbildutako guztiei katalogo bat oparitu ondoren, gure literaturak sortzen duen jakinminaren lekuko bihurtu gintuzten.

Galtzagorri Elkartekoon iritiz, garrantzizkoa da euskaraz argitaratzen diren lan aipagarrien berri



Jokin Mitxelena

ematea eta beraien gaineko hausnarketak bideratzea. Haur eta gazte literaturaren inguruan dabilzan aditu, idazle, irakasle, argitaratzaile,... eta irakurleen arteko loturak sendotu nahiko genituzke, eta gure literatura kanpoan ezagutarazi. Solaskide eta irakurle berriek euskarazko haur literatura aberats dezaketela pentsatzen dugulako ari gara lanean, euskal bizitza literarioa aberasteko.

Hutsune eta erronka horiei guztiei egin nahi die aurre gure elkar-teak, eta 1999rako aurreikusitako jardueren artean, azaroan Gasteizen antolatuko ditugun «*Literatura eta*

Eskola Jardunaldiak» eta aldizkari hau genituzke. Horiekin batera, aurten Munich-en egingo den «Estatu espainiarreko ilustratzaileak» erakusketara 7 ilustratzaile euskaldun eramatea ere lortu dugu.

Ez dakit artikulua labur honek Galtzagorri Elkartea gehixeago ezagutzen lagunduko dizuen, baina esan beharrik ez dago gure elkartearen atak irekita daudela haur eta gazte literatura maite duzuen guztiontzat. Dagoeneko 60tik gora bazkide bagara ere, kopuru hori handitu eta sendotzea da gure asmorik gertukoena. Hemen duzue gure helbidea:

GALTZAGORRI ELKARTEA

885 posta-kutxatila

20.080 Donostia

galtzagorri@wanadoo.fr

tel: 656729095

Elkar ikusi artean, besarkada bat galtzagorri guztien partez.

MARI JOSE OLAZIREGI

Galtzagorri Elkarteko Lehendakaria